

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK, NAFARROAKO HEZKUNTZA BEREZIKO BALIABIDEEN ZENTROAN (NHBBZ) LANPOSTU BATZUK ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO MEREZIMENDU LEHIAKETARAKO. 963/2018 Ebazpena**

Proiektu idatziaren nota: 0 eta 3 puntu artean

Proiektuaren ahozko azalpenaren eta defentsaren nota: 0 eta 7 puntu artean

Amaierako nota: 0 eta 10 puntu artean

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK PROIEKTU IDATZIRAKO**

PUNTUAZIOA		IRIZPIDEAK
<b>Proiektuaren ezaugarriak</b>		
<b>2.5 gehienez</b>	<b>0.5</b>	<b>Helburuak</b> Eskuratu nahi duen lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko arrazoizko plana aurkezten du. Plana dagokion testuinguruan jarria dago, behar bezain argi. Helburuak ongi formulatuak daude eta koherenteak dira proiektuko gainerako elementuekin.
	<b>0.5</b>	<b>Edukiak</b> Aniztasunari erantzuteko ikuspegia, argudiatuta. Esku-hartzearen xede diren berariazko beharren definizioa. Esku-hartzearen helburuak eta irizpideak zehazten ditu. Esperientzia arrakastatsuak ikertu eta sustatzeko azterlanak egitea proposatzen du.
	<b>1</b>	<b>Taldearen jarduketa estrategiak</b> Zuzeneko esku-hartzea deskribatzen du. Azaltzen du nola egin behar den zeharkako esku-hartzea. Prestakuntza proiektu bat adierazten du. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiltzen ditu lana dinamizatzeko.
	<b>0.25</b>	<b>Jarduketan ebaluazioa</b> Jarduketak ebaluatzeko prozedura eta tresna egokiak ezartzen ditu. Ebaluazioaren epeak zehazten ditu.
	<b>0.25</b>	<b>Jarduketa plan</b> bat ere gehitzen du, talde berariazko baten balizko koordinatzaile gisa aritzeko, lan kooperatiboko estrategiak eta tresnak azpimarratuz
<b>Berariazko alderdiak</b>		
<b>0.5 gehienez</b>		Aintzat hartzen du diziplinarreko esku-hartzea eta NHBBZko beste talde batzuekin esku hartzea.
		Ikastetxeei aholku ematea jasotzen du, aniztasunari erantzuteko neurriak ezartzeko plangintzan eta curriculum proposamen berritzaile eta inklusiboen garapen eta ezarpenean.
		Aintzat hartzen du baliabideen eta materialen egokitzapena, berariazko premia duten ikasleentzako hezkuntza erantzuna ahalbidetzeko.
		Garrantzitsutzat jotzen du funts bibliografiko eta teknologikoa eguneratuta edukitzea.
		Kontuan hartzen du beste organismo eta erakundeekin koordinatzea, bere eskumenerako gaitetan.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK PROIEKTUAREN AHOZKO AZALPENERAKO ETA DEFENTSARAKO

PUNUAZIOA		IRIZPIDEAK
<b>Ahozko azalpenaren alderdi formalak</b>		
<b>1 gehienez</b>		Ahozko azalpena koherentea da aurkeztutako proiektuarekin. Egoki kudeatzen du azalpenerako ezarritako denbora.
<b>Proiektuaren ezaugarriak</b>		
<b>5 gehienez</b>	<b>1</b>	<b>Helburuak</b> Eskuratu nahi duen lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko arrazoizko plana aurkezten du. Plana dagokion testuinguruan jarria dago, behar bezain argi. Helburuak ongi formulatuak daude eta koherenteak dira proiektuko gainerako elementuekin.
	<b>1</b>	<b>Edukiak</b> Aniztasunari erantzuteko ikuspegia, argudiatuta. Esku-hartzearen xede diren berariazko beharren definizioa. Esku-hartzearen helburuak eta irizpideak zehazten ditu. Esperientzia arrakastatsuak ikertu eta sustatzeko azterlanak egitea proposatzen du.
	<b>2</b>	<b>Taldearen jarduketa estrategiak</b> Zuzeneko esku-hartzea deskribatzen du. Azaltzen du nola egin behar den zeharkako esku-hartzea. Prestakuntza proiektu bat adierazten du. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabiltzen ditu lana dinamizatzeko.
	<b>0.5</b>	<b>Jarduketan ebaluazioa</b> Jarduketak ebaluatzeko prozedura eta tresna egokiak ezartzen ditu. Ebaluazioaren epeak zehazten ditu.
	<b>0.5</b>	<b>Jarduketa plan</b> bat ere gehitzen du, talde berariazko baten balizko koordinatzaile gisa aritzeko, lan kooperatiboko estrategiak eta tresnak azpimarratuz
<b>Berariazko alderdiak</b>		
<b>1 gehienez</b>		Aintzat hartzen du diziplinarteko esku-hartzea eta NHBBZko beste talde batzuekin esku hartzea. Ikastetxeei aholku ematea jasotzen du, aniztasunari erantzuteko neurriak ezartzeko plangintzan eta curriculum proposamen berritzaile eta inklusiboen garapen eta ezarpenean. Aintzat hartzen du baliabideen eta materialen egokitzapena, berariazko premia duten ikasleentzako hezkuntza erantzuna ahalbidetzeko. Garrantzitsutzat jotzen du funts bibliografiko eta teknologikoa eguneratuta edukitzea. Kontuan hartzen du beste organismo eta erakundeekin koordinatzea, bere eskumenerako gaitan.